

## ISEI - IVEI

**Rs2.2.2. CURRICULUM KONPETENTZIA DBHko 2.  
MAILAN: GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA-  
KOMUNIKAZIOA.**





**ISEI-IVEI**  
IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN  
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

---

**Edizioa: 2016ko abendua**  
**© ISEI-IVEI-k argitaratua**

**ISEI-IVEI-K ARGITARATUA**

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea  
Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo  
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84  
info@isei-ivei.net - [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

**LAN TALDEA**

Araceli de Francisco  
Inmaculada Tambo  
José Ramón Ugarriza  
M<sup>ª</sup> Paz Martínez

**KOORDINATZAILEA**

M<sup>ª</sup> Paz Martínez

**AHOLKULARITZA TEKNIKOA**

José Luis Tranche  
Eduardo Ubieta



## Rs2.2.2

### Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Gaztelania.

HEZKUNTZAKO  
ADIERAZLEEN  
EUSKAL SISTEMA



<b>Sarrera</b>	<b>4</b>
<b>Rs2.2.2.1 taula eta grafikoak: DBHko 2. mailako ikasleek <i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian</i> eta dimentsioetan (<i>Irakurmena, Entzumena eta Idazmena</i>) lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera, orokorra eta sexuaren arabera.</b>	<b>6</b>
<b>Rs2.2.2.2 taula eta grafikoak: DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera <i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako</i> hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.</b>	<b>7</b>
<b>Rs2.2.2.3 taula eta grafikoak: DBHko 2. mailako ikasleek <i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian</i> lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua).</b>	<b>8</b>
<b>Rs2.2.2.4 taula: DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa <i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako</i> hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta etxeko hizkuntza.</b>	<b>9</b>
<b>Rs2.2.2.4 grafikoa: DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa <i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako</i> hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta etxeko hizkuntza. 2015. urtea.</b>	<b>10</b>



### GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOKO KONPETENTZIAREN ESKURAPENARI BURUZKO DATUAK DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO (DBH) 2. MAILAKO IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2009, 2010, 2011, 2013 eta 2015<sup>1</sup>.

Adierazle honek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleek *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* duten errendimendu-mailari buruzko informazioa ematen du. Emaitzak 2009, 2010, 2011, 2013 eta 2015eko Ebaluazio Diagnostikoetan Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) lortutakoak dira, 250 puntuko batez bestekoa, 50 puntuko desbideratze tipikoarekin eta hiru errendimendu maila dituen eskala batean.

Emaitzak aldagai jakin batzuk kontuan hartuta aztertzen dira: ikasleen sexua, dimentsioak (*Entzumena, Irakurmena eta Idazmena*), hizkuntza-ereduak<sup>2</sup> eta ikastetxearen titulartasuna<sup>3</sup> (geruzak), indize sozio-ekonomikoa eta kulturala (ISEK), irakasmailarekiko adin-egokitasuna (jaioturtea eta egiten ari den irakasmaila), aitaren eta amaren ikasketen maila gorena, jaiolekua eta familiako hizkuntza.

2009an (205), 2010ean (252) eta 2011n (254), guztizko batez besteko puntuazioek gora egin dute pixkanaka. 2013an (253) 1 puntu egin du behera eta 2015ean mantendu egin da (253). Neskek mutilek baino puntuazio altuagoak mantendu dituzte Ebaluazio Diagnostiko guztietan; hala ere, aldea ez da oso handia, 5 puntu ingurukoa.

*Entzumena, Irakurmena eta Idazmena* hiru dimentsioei dagokienez, bost ebaluazioetan zehar, hobekuntza nabaritu da batez besteko puntuazioetan *Irakurmena* (252) eta *Entzumena* (256) dimentsioetan; aldiz, *Idazmenean*, puntuazioa 250 puntukoa da beti proba urtero aldatzen delako eta ez delako alderagarria. Puntuaziorik altuena *Entzumenean* (258) ikusten da 2011. urtean. Neskek mutilek baino puntuazio hobeak lortu dituzte (2009an 13 puntu gehiago eta gainerako urteetan mutilek baino 6 puntu gehiago). *Idazmenean* berriz, 2015ean, 21 puntu gehiago, 2010ean eta 2013an 19 puntu gehiago, eta 2011n neskek mutilek baino 14 puntu gehiago). Aldiz, *Entzumenean*, mutilek neskek baino puntuazio altuagoa lortu dute 2009an (3 puntu) eta 2013an (1 puntu) eta nesken puntuazio berbera (258) 2011n. 2015ean, neskek mutilek baino 5 puntu gehiago lortu dituzte *Entzumenean*.

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian, errendimenduko erdiko mailan eta maila aurreratuan, ikasleen ehunekoaren bilakaerak 2,7 puntu egin du gora 2009. urtetik (% 84,0) 2015. urtera (% 86,7), baina erdiko mailan eta maila aurreratuan ikasleen ehunekorik altuena 2011koa izan zen (% 88,1). Hasierako mailan, mutilen ehunekoa, bost urteetako batez bestekoa, nesken kopurua baino 3,3 puntu altuago kokatzen da. Aldiz, erdiko mailan eta maila aurreratuan nesken ehunekoa mutilena baino handiagoa da. Hala ere, aldeak txikiak dira, 1,2 puntu ingurukoa erdiko mailan eta 2,1 puntukoak maila aurreratuan.

<sup>1</sup> Informazio gehiagorako: Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013 eta 2015. Txosten orokorra. <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm>

<sup>2</sup> EAEen hiru hizkuntza-eredu daude: A (irakaskuntzako hizkuntza gaztelania), B (irakaskuntzako hizkuntza euskara eta gaztelania) eta D (irakaskuntzako hizkuntza euskara).

<sup>3</sup> EAEen funts publikoak jasotzen dituzten bi sare daude: titulartasun publikokoa eta itunpekoa.



## Rs2.2.2

### Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Gaztelania.

HEZKUNTZAKO  
ADIERAZLEEN  
EUSKAL SISTEMA



*Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan* geruza desberdinetako batez besteko puntuazioen bilakaerak, bost urteetan, puntuaziorik altuenak erakusten ditu itunpeko A eta B erduetan; itunpeko D erdua eta D eredu publikoa datoz jarraian. 2011n, batez besteko puntuaziorik altuena itunpeko A erduan eman da (264) eta baxuena A eredu publikoan (214) 2009an. 2009tik 2015erako bilakaera positiboa izan da geruza guztietan B eredu publikoan izan ezik, 6 puntu egin baitu behera.

2015ean Ebaluazio Diagnostikoetan, ehunekorik altuenean erdiko mailan eta maila aurreratuan dagoen ikasleen profila hau da: gurasoek goi mailako ikasketak dituztenak (% 91,2), irakasmilarekiko adin-egokitasunean dagoena (% 90,6), ISEK maila altua duena (% 92,8) eta Euskadin jaio dena (% 87,7). Erdiko mailan eta maila aurreratuan ehuneko txikiena duen ikasleen profila irakasmila errepikatu duten ikasleena (% 69,9), gurasoek derrigorrezko ikasketak amaitu gabe dituzten ikasleena (% 68,4), ISEK maila baxua (% 79,9) dutenena eta ikasle atzerritarrena (% 75,1) da.



## Rs2.2.2

### Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Gaztelania.



HEZKUNTZAKO  
ADIERAZLEEN  
EUSKAL SISTEMA



#### Rs2.2.2.1 taula eta grafikoak:

**DBHko 2. mailako ikasleek Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian eta dimentsioetan (Irakurmena, Entzumena eta Idazmena<sup>4</sup>) lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera, orokorra eta sexuaren arabera.**

		2009	2010	2011	2013	2015
<b>Guztira</b>	Guztira	<b>250</b>	<b>252</b>	<b>254</b>	<b>253</b>	<b>253</b>
	Neskak	253	254	256	254	256
	Mutilak	247	250	253	251	251
<i>Irakurmena</i>	Guztira	<b>250</b>	<b>252</b>	<b>252</b>	<b>251</b>	<b>252</b>
	Neskak	257	255	255	254	255
	Mutilak	244	249	249	248	249
<i>Entzumena</i>	Guztira	<b>250</b>	<b>252</b>	<b>258</b>	<b>256</b>	<b>256</b>
	Neskak	248	253	258	256	258
	Mutilak	252	252	258	257	253
<i>Idazmena</i>	Guztira	<b>250</b>	<b>250</b>	<b>250</b>	<b>250</b>	<b>250</b>
	Neskak	258	260	257	260	261
	Mutilak	243	240	243	241	240



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013 eta 2015.

<sup>4</sup> *Idazmena* proba urtero aldatzen denez, batez besteko puntuazioa 250 da beti.



## Rs2.2.2

### Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Gaztelania.



HEZKUNTZAKO  
ADIERAZLEEN  
EUSKAL SISTEMA



#### Rs2.2.2.2 taula eta grafikoak:

**DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.**

	Errendimendu maila HASIERA			Errendimendu maila ERDIA			Errendimendu maila AURRERATUA		
	Guztira	Neskak	Mutilak	Guztira	Neskak	Mutilak	Guztira	Neskak	Mutilak
2009	<b>16,0</b>	13,4	18,3	<b>54,7</b>	55,7	53,8	<b>29,3</b>	30,8	27,9
2010	<b>12,1</b>	10,6	13,5	<b>59,4</b>	59,9	58,9	<b>28,5</b>	29,5	27,6
2011	<b>11,9</b>	10,3	13,5	<b>58,6</b>	59,3	57,9	<b>29,5</b>	30,4	28,7
2013	<b>14,9</b>	13,7	16,0	<b>55,7</b>	56,6	54,9	<b>29,4</b>	29,7	29,0
2015	<b>13,3</b>	11,6	14,9	<b>57,6</b>	57,7	57,5	<b>29,1</b>	30,7	27,6



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013 eta 2015.



## Rs2.2.2

### Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Gaztelania.



HEZKUNTZAKO  
ADIERAZLEEN  
EUSKAL SISTEMA



#### Rs2.2.2.3 taula eta grafikoak:

DBHko 2. mailako ikasleek *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian* lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua).

	2009	2010	2011	2013	2015
A Publikoa	214	223	220	227	221
B Publikoa	243	243	246	234	237
D Publikoa	247	249	250	250	249
A Itunpekoa	256	258	264	260	258
B Itunpekoa	258	260	262	259	263
D Itunpekoa	251	255	257	255	256
Guztira	250	252	254	253	253



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013 eta 2015.





## Rs2.2.2

### Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Gaztelania.

HEZKUNTZAKO  
ADIERAZLEEN  
EUSKAL SISTEMA



#### Rs2.2.2.4 taula:

**DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetakako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, hezkuntza-sarea, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta etxeko hizkuntza.**

		Ikasle %					Hasierako maila	Erdi-maila 2015	Maila aurreratua
		2009	2010	2011	2013	2015			
ISEK	Maila baxua	17,8	19,0	18,1	15,6	<b>20,0</b>	20,1	59,3	20,6
	Maila ertain baxua <sup>□</sup>	22,5	21,5	22,0	25,1	<b>24,4</b>	14,8	60,6	24,6
	Maila ertain altua <sup>□</sup>	27,8	28,5	28,6	27,3	<b>28,2</b>	13,2	58,1	28,7
	Maila altua <sup>□</sup>	31,8	31,0	31,2	32,0	<b>27,3</b>	7,2	53,1	39,7
Egokitasuna	Ikasmaila egokia	80,5	79,9	81,4	81,8	<b>81,3</b>	9,4	56,9	33,7
	Ikasmaila EZ egokia	19,5	20,1	18,6	18,2	<b>18,7</b>	30,1	60,7	9,2
Titulartasuna	Publikoa	44,0	45,3	45,3	44,2	<b>46,6</b>	15,9	60,1	24,0
	Itunpekoa	56,0	54,7	54,7	55,8	<b>53,4</b>	11,1	55,4	33,5
Gurasoen ikasketa mailarik altuena	Derrig. Ikask. bukatu <b>gabe</b>	3,1	3,0	3,4	3,1	<b>2,9</b>	31,6	60,4	8,0
	Derrigorrezko ikasketak	16,7	15,7	17,7	15,5	<b>15,4</b>	21,2	62,5	16,3
	Batxilergoa, HZ	31,9	32,6	36,3	34,1	<b>36,0</b>	13,7	60,9	25,4
	Goi mailako ikasketak	41,7	41,5	42,6	47,3	<b>45,8</b>	8,8	52,7	38,5
Jaioterria	Autoktonoa	93,2	92,6	92,3	93,1	<b>92,3</b>	12,3	57,4	30,3
	Atzerritarra	6,8	7,4	7,7	6,9	<b>7,7</b>	24,9	58,6	16,5
Familia-hizkuntza*	Euskara	15,0	19,7	19,9	21,8	<b>21,1</b>	13,3	56,8	30,0
	Euskara <b>EZ</b> dena	82,6	76,3	80,1	74,8	<b>78,9</b>	13,2	60,2	26,6

\*2009 eta 2010. urteetan, ikasle kopuru txiki batek ez zuen etxeko hizkuntzaren galdera erantzun.

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013 eta 2015.



## Rs2.2.2


### Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Gaztelania.

HEZKUNTZAKO  
ADIERAZLEEN  
EUSKAL SISTEMA



#### Rs2.2.2.4 grafikoa:

DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetakako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, hezkuntza-sarea, gurasoen ikasketa maila, jaiotekua eta etxeko hizkuntza. 2015. urtea.



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2015.